

AUZOLANERAKO GIDA PRAKTIKOA

# AUZOEKIN



Aitor Izaguirre  
Beñat Olave  
Mikel Gartziarena





**Gaztelera**zko bertsio bat proiektuaren web orrialdean aurkituko duzu: [www.auzokein.eus](http://www.auzokein.eus)

ISBN: 978-84-09-48304-4

Depósito legal: LG D 00084-2023

Argitalpen hau Auzolanean Ekin! proiektuaren barruan dago, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa jaso du.



Eskerrak eman nahi diegu gida hau sortu eta garatzeko balio izan duten ekarpen eta gogoetekin parte hartu duten pertsona, elkarte, entitate edota enpresa guztiei:

Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Gizalde, Gurutze Gorria Gipuzkoa, CLI+ Comunicación, Saregintza Elkarte, APTES Elkarte, Sorginlore Elkarte eta Hazi eta Ikasi Elkarte.

Egileak: Beñat Olave, Aitor Izaguirre eta Mikel Gartziarena.

Inprenta: Leitzaran Grafikk

Ilustrazioak: pch.vector freepik-en

Argitaratze data: 2023. Lehenengo edizioa.

Gida honen paperezko bertsioa edo bertsio digitala zabaltzea eskertzen dugu, eta banatzeko, kopiaatzeko eta berrerabiltzeko baimena ematen dugu, betiere irabazi-asmorik gabe egiten bada eta egiletza aitortzen bada.

## Kaixo!

Aitor, Beñat eta Mikel gara, Auzolanean Ekin! izeneko proiektua martxan jarri dugun hiru gazte gipuzkoarrak.

Proiektua bolondres gisa gizartea edo ingurumena eraldatu nahi duten pertsoneri zuzenduta dago. Badakigu gure komunitate edo auzoetatik ezinezkoa zaigula maila orokorrean aldaketak lortzea, baina uste osoa dugu honako esaera ezagun honetan: jende txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezakete.

Esku arteko gida proiektu komunitario bat abian jartzen laguntzeko sortu da. Baina dagoeneko halako talde bateko edo GKE bateko kide izanik ere, gida irakurtzen eta web orriko edukian barna nabigatzen animatzen zaitugu. Bertan zuen lana hobetzeko ideia berriak aurkitzea espero dugu. Edozein iradokizun egiteko, sare sozialetan aurkituko gaituzu @auzoekin izenarekin.



Argazkia: Ezkeretik eskuinera Aitor Izaguirre, Beñat Olave eta Mikel Gartziarena

## **AURKIBIDEA**


<b>01. GIDA</b>	<b>8</b>
<b>02. AUZOLAN PROIEKTUAREN DISEINUA</b>	<b>12</b>
<b>03. PROIEKTUKO JARDUEREN DISEINUA</b>	<b>18</b>
<b>04. HELBURU DIREN PERTSONAK ETA INGURUMENA</b>	<b>24</b>
<b>05. BOLUNTARIOAK ERAKARTZEA ETA KOORDINATZEA</b>	<b>28</b>
<b>06. EBALUAZIOA ETA PRESTAKUNTZA IBILBIDEA</b>	<b>38</b>
<b>07. PROIEKTUAREN ZABALKUNDEA</b>	<b>44</b>
<b>08. PROIEKTUAREN AURREKONTUA</b>	<b>50</b>
<b>09. ERALDAKETA DIGITALA</b>	<b>54</b>
<b>10. GIZARTE-SARE BATEN PARTE IZATEA</b>	<b>58</b>
<b>11. LEGE- ETA KONFIDALTASUN-ALDERDIAK</b>	<b>62</b>
<b>12. INTERESEKO BIBLIOGRAFIA ETA ERAGILEAK</b>	<b>68</b>



# 01.

## GIDA

1. Zergatik gida praktiko hau?
2. Nola erabili?
3. Zer ulertzen dugu auzolan proiektutzat?







## **Zergatik gida praktiko hau? Nola erabili?**

Interneten dagoeneko dokumentu eta webgune asko daude gizarte-proiektuak sortzeari buruz hitz egiten dutenak, eta, horrexegatik hain zuzen, ez dirudi beharrezkoa denik gida berri bat egitea. Halere, kasu gutxitan aztertzen da elkartekide ez diren pertsonen proiektuak abian jartzea, baliabideak oso mugatuak izaten baitira.

Gidak nabarmendu nahi ditu mota honetako proiektuek dituzten erronkak, eskuarki auzolan edo ekintza komunitario gisa ezagutzen direnak. Ikusiko duzunez, gida laburra da, baina formatu txikiak ez zaitzala engaina, gidak formatu birtualean ere jarraitzen baitu eta proiektuaren webgunean askoz informazio gehiago eskuratu ahal izango baituzu: [www.auzoekin.eus](http://www.auzoekin.eus)

Auzolanean errotutako proiektu bat sortzeak fase ezberdin asko izan ditzake, eta motela izan ohi da; horregatik, nahiago izan dugu gida arin bat sortu, eta bertan dauden QR kodeen bidez edukia zabaldu, une bakoitzean behar eta nahi duzun gaiari sakontzeko.

Gidaren lehenengo edizioa 2023an argitaratu da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziarioari esker paperean egongo da. Baina urtero edizio berri bat argitaratuko dugu webgunean, material gehiagorekin batera, beraz, ez ahaztu guri bisita egitea!

## Zer ulertzen dugu auzolan proiektutzat?

Proiektu komunitarioei buruzko hainbat definizio aurki daitezke. Askotan aipatzen da kolektiboa gorpuzten edo auzo bateko pertsonak beren egoera soziala hobetzeko irtenbideak bilatzen dituzten ekimenak direla. Auzolanaren kontzeptuak iragan luzea du Euskal Herriko herrietan. Kasu horietan, auzo bereko pertsonak elkargune batean biltzen dira, eta zeregin zehatzak egiten dituzte guztien onerako.

Gidaren izenburuak proiektu komunitarioak edo auzolana aipatzen baditu ere, kasu gehiagora zabaldu nahi dugu. Gure ustez, gida egokia da pertsona talde batek, boluntarioki, gizartea edo ingurumena hobetu nahi duen proiektu ororako. Bereziki, oraindik elkarte gisa eratu ez diren eta finantzaketa publiko edo pribaturik jasotzen ez duten taldeentzako.

Bestalde, gidaren xede diren proiektuek bilatu beharko lukete elkarte bat sortzea edo lehendik eraturik dagoen GKE batean sartzea. Izan ere, epe luzean, proiektu horiek iraunkorrak izateko eta hazten jarraitzeko modurik onena da.



# 02.

## AUZOLAN PROIEKTUAREN DISEINUA

1. **Gizarte- edo ingurumen-diagnostikoa egitea**
2. **Proiektuaren helburuak zehaztea.**
3. **Proiektuaren jarduerak eta barne-kudeaketa definitzea**

”

“Ikuspegi komunitarioak helburu ditu bai autonomia pertsonala baita ekintza eta antolaketak kolektiboak ere. Komunitatea, lurraldearen sendotze demokratikoa da. Kontzeptu hau partaidetzatik hurbil dago, baina ez da balioidea.”

**Ekintza publikora bideratutako marko kontzeptuala (2022). Gipuzkoako Foru Aldundia**

## Lehenengo urratsa: gizarte- edo ingurumen- diagnostikoa egitea.

Funtsezkoa da eraldatu nahi den egoerari buruz ahal den guztia jakitea; izan ere, proiektua gauzatzeko kezka nahiz motiboa bizipen pertsonal eta subjektibo batetik sortzen da; edonola ere, egoera modu objektiboan aztertzean, akaso, egoerari beste modu batean heldu behar zaiola ikusiko da.

Azterketa sakona egiten hasi aurretik, baliagarria izan daiteke egoera edo arazoa honako aukera-sorta hauen barruan kokatzea:

1. **Osasuna:** elikadura, osasun mentala, adikzioak...
2. **Etxebizitza:** irisgarritasun falta, etxerik gabeko pertsonak...
3. **Hezkuntzakoak:** eskola-errefortzua, zientzia-dibulgazioa...
4. **Aisia edo kultura:** aisialdi alternatiboa, tradizioak mantentzea, kirol-jarduerak...
5. **Enplegukoak:** langabezia, tokiko merkataritza, ekintzaitza...
6. **Segurtasuna:** genero-indarkeria, arrazakeria, delinkuentzia...
7. **Ingurunea:** desertifikazioa, kutsadura, animalien aurkako tratu txarrak...

Litekeena da egoera konplexua izatea eta kasu bat baino gehiago barne hartzea. Gure gomendioa da, proiektua abiatzerako lehenengo urtean, helburua zerrendatutako talde bakar batean osorik edo partzialki kokatzea.

Zer kasuri ekin nahi zaion erabaki ondoren, hurrengo urratsa tokiko egoera aztertzen hastea da. Horretarako, estatu edo eskualde mailako azterlanak edo proiektuak bilatzea gomendatzen dugu. Horrela, arazoa hobeto ulertzeaz gain, sor daitezkeen amankomuneko heldulekuak eta konponbideak aurki ditzakegu. Esteka honetan zure intereseko egoerari buruzko bibliografia bilatzen ikasteko materiala uzten dizugu.

[auzoekin.eus/  
eus02](https://auzoekin.eus/eus02)



## **Bigarren urratsa: proiektuaren helburuak zehaztea.**

Zer lortu nahi dugu? Proiektuaren diseinuan agertuko den funtsezko galdera da. Hala ere, proiektua abiarazi ondoren ere egin behar da; izan ere, proiektua abian jartzean eta errealitatea hobeto ezagutzean, helburuak egokitu egin behar dira. Denboran luze iraun ohi duena proiektuaren xedea da, helburuak baino maila altuagoan kokatzen baita, proiektuari zentzua eta misioa ematen baitizkio eta konponbidera iristeko bideak eskaitzen.

Helburuetara itzulita, ikus dezagun horiek nola definitu. Literatura asko dago egiteko moduei buruz, hala nola SMART metodologia erabilita. Aitzitik, esku arteko testuan, auzolan proiektuetarako funtsezko alderdi batzuk baino ez ditugu aipatuko.

Zehazten diren helburuak neurgarriak izan behar dira, bestela ezinezkoa izango litzateke taxuzko jarraipena egitea. Horiek ere, noski, lorgarriak eta errealistak izan behar dira, eta, gainera, aldi jakin baten barruan finkatuta egon behar dira.


Funtsezkoa da, halaber, gauzatu nahi den helburua ez egotea inguruko beste talde edo erakunde batek baldintzaturik; are, lagundu nahi diren pertsona edo inguru berdintsuekin badabilta, noski. Hala bada, egokiena talde edo erakunde horretatik lan egiteko modua aurkitzen saiatzea da, edo erakundeak zuen taldearen esku uztea helburu hori.

Gerta daitekeena da laguntzen zaien inguruneak edo pertsonak beste laguntza mota bat ere jasotzea; kasu horretan, gainerako gizarte-erakunde edo-zerbitzuekin batera lan egin behar da. Horri buruzko xehetasunak 10. atalean aurkituko dituzu, gizarte-sare baten parte izateko moduari buruz jakingarriak azaltzen ditugunean.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, bereziki hamarkada honetan, 2030 Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuen (GJH) bidez lan egiten saiatzea da.

Hain zuzen, 2030. urtera zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta argiago ohartzen ari gara agendan ezarritako hainbat helburu global kasik lortezin direla; hala eta guztiz ere, munduko erakundeek antzeko hizkera erabiltzea lortu dute, erronkei nolabait aurre egite bidean eta albo-kalteak arintze aldera. Beraz, proiektuak hizkera eta helburu horiek ere bereganatzen baditu, askoz errazagoa izango da bere burua ezagutaraztea, elkarre gisa eratzea, finantzaketa eskatzea, besteak beste.

Kontuan izan behar da, halaber, 2030 Agendan ez direla soilik maila globalean lortu beharreko helburuak ezartzen. Autonomia-erkidegoek ere aplikatzen dituzte, baita makina bat udalek ere. Beraz, zure inguruan zer helburu lortu nahi diren kontsulta dezakezu, eta proiektuak helburu horiek lortze bidean izan ditzakeen oztopoak eta lasterbideak aurreikusi ere bai, erlazionatutako agente nahz elementuekin harremama errazagoa izango baita.





## **Hurrengo urratsak: proiektuaren jarduerak eta barne-kudeaketa definitzea.**

Proiektuan zer lortu nahi den zehaztu ondoren, pentsatu behar da zein izan daitezkeen hasierako baldintzak, ze behar ase beharko ditugun, zer jarduerak ahalbidetuko duten ezarritako helburuak erdiestea eta nolakoak izan daitezkeen barne-kudeaketak. Horiez guztiez dihardute hurrengo atalek.

Plangintza ahalik eta errealistena izan behar da. Adibideak adibide,, udalak baliabide jakin batzuk emango dituela aurreikusten bada, eta errealitatean laguntza horiek iritsiko ez balira, oso litekeena litzateke proiektua bertan behera gelditzea edo atzerapenak jazotzea. Beraz, hasteko, zer beharden pentsatzerakoan, segurura jo behar da, eta, ondoren, beti egongo da aukera boluntariotza-taldea hazteko, instalazio berriak lortzeko edo beste eragile batzuen finantzaketa galdegiteko eta laguntza-sarea handitzeko.

Gogoratu! Proiektua diseinatzeko prozesu osoan, garrantzitsua da hasierako taldean parte hartuko duten pertsona guztiak inplikatzeko. Hainbat arrazoi ditugu horretarako:

1. Partaidetza handiagoak motibazio handiagoa eragingo du.
2. Hobeto jakingo da pertsona bakoitzak zer konpromiso eta gaitasunekin egin dezakeen ekarpen.
3. Ezagutza- eta iritzi-aniztasunak beti lagunduko du proiektua ahalik eta hobekien lantzen.

Era berean, ez litzateke gaizki egongo beste eragile batzuk eta proiektuaren xede diren pertsonak ere kontuan hartzea, beren ikuspegia ere eman eta aberasgarria suerta dadin.

# 03.

## PROIEKTUKO JARDUEREN DISEINUA

1. Proiektuko jardueraren diseinua
2. Zeharkako ikuspegiak sartzea



“Auzolanean kulturarteko, feminismoko eta intersekzioko ikuspegiak sartzeak aukera ematen du komunitate-arloa eraikitzeko, bizipenen, disidentzien eta erresistentzien arteko elkarrizketa batetik abiatuta.”

**Sorginlore Elkartea**

## Proiektuko jardueren diseinua.

Hamaika jardueraren bidez hobetu daiteke gizartea edo ingurua, eta zaila izan daiteke nondik hasi erabakitzea. Ez dago aukera zuzen eta posible bakarra; kontrara, garrantzitsuena da jarduera horiek bilatzen duten hobekuntza lortzen laguntzea. Proiektuan zer jarduera sartu erabakitzeko modu on bat honako metodologia hauetako bat aukeratzea izan daiteke:

1. Materiala entregatzea: materiala, elikadura.
2. Konpainia edo taldekatzea: prestakuntza, aisialdia.
3. Sentsibilizazioa: herritarrak, politikariak, enpresak.
4. Ingurunea zaintzea.
5. Kultura- edo kirol-ekitaldiak antolatzea.

Hobekien egokitzen diren jardueren ideia orokor bat izan ondoren (bat eta hiru artekoak nahiko, hasteko), xehetasunez diseinatzea da hurrengoa. Horretarako, web orrialdean txantilo erabilgarriak aurkituko dituzu, eta hurrengo atalean zeharkako ikuspegi garrantzia jorratuko dugu.



auzoekin.  
eus/eus03

## Zeharkako ikuspegiak sartzea.

Jarduera guztietan eta barne-kudeaketan, alderdi komun batzuk egongo dira, eta arreta jarri beharko litzaieke beti. Zeharkako ikuspegi gisa ezagutzen dira. Funtsezko lau ikuspegi azpimarratu nahi ditugu komunitate-proiektuetarako.

Aniztasunarekiko arreta. Era guztietako **dibertsitate funtzionalak** aurki daitezke proiektuan, bai boluntarioak koordinatzerakoan, bai hartzaileak artatzerakoan. Proiektu komunitario batean, baliabideak mugatuak izango dira, eta jakin behar da beti egongo direla oztopoak pertsona batzuentzat, baina ahalik eta gehien murrizten saia daitezke.

Oztopo horiek murrizteko modu bat da pentsatu eta gogoetatzea; proiektua diseinatzerakoan, zer-nolako erronkak ager daitezkeen. Proiektuaren helburuen arabera izango da, baina kontuan hartu behar da pertsona guztiek gaitasun kognitibo, mugikortasun eta komunikazio desberdinak dituztela. Ideia-erauntsi bat, oztopo posibleak eta horien konponbidea planteatzen dituen, oso erabilgarria izan daiteke. Era berean, garrantzitsua da konpondu gabe geratuko diren mugez jabetzea. Prozesu horretan askotariko talde bat izateak errazagoa izaten lagunduko du.

Zeharkako beste ikuspegi bat **kultura-aniztasuna da**. Kultura askorentzat barneratzailea izango den proiektu bat sortzea erronka handia da, eta luze jo dezake horrek, baina abiapuntu posible bat ingurune eleanitz bat sortzea izan daiteke, ama-hizkuntza desberdinak dituzten pertsonen arteko komunikazioa errazteko. Estrategia eleanitzunak funtsezkoak izan daitezke, adibidez, hainbat hizkuntza erabiltzea ohikoa den tokietan egiten diren proiektuetan, hala nola Euskadin, Nafarroan, Asturiasen, Galizian, Katalunian, besteak beste. Eta, batez ere, munduko hainbat lekutatik etorritako atzerritar jatorriko biztanleak dauden eremuetan.

Pertsona batek bere lehenengo hizkuntza hitz egiten ez duenean, sarri-askotan ezin du nahi duen guztia adierazi, eta, horren ondorioz (1), hartzailea bada, ezin zaio benetan behar duen laguntza eman. (2) Boluntarioa bada, tentuz ibili zer eta nolako taldetan sartzen dugun, frustrazioa sentituko baitu bere lana ahal bezain ondo egin ezin duelako. Estekan ingurune eleaniztunei eta gainerako ikuspegiei arreta ematen eta egokitzen ikasteko baliabideak aurkituko dituzu.

Gure ustez funtsezkoa den hirugarren ikuspegi bat **berdintasuna** da. Proiektuak aukera berdinak eskaini behar dizkie pertsona guztiei. Egoerak egoera, desberdintasuna egon daiteke boluntario gisa parte hartzeko orduan (1) proiektuaren barruan bi talde daudenean, bata, dagoeneko elkar ezagutzen duten eta erabakiak hartzen ohituta dauden pertsonekin; eta bestea, proiektua interesatzen zaielako etortzen diren pertsona berriekin, baina jardueretara joatea baino eskatzen ez zaienekin. (2) Erantzukizunak banatzerakoan, koordinatzaileek aurreiritziekin eta modu inkontzientean jokatu ohi dute.

Berdintasuna ere zaindu behar da, proiektuak berezko duen xede-publikoari erantzuteko. Adibidez, batzuetan laguntza proiektuko pertsonak ezagutzen dituzten pertsoneri bakarrik eman dakieke, eta ez komunitate osoari. Kasu horietan guztietan modu ekitatiboan lan egiteko, lidergo-estrategiak, genero-ikuspegia eta interseksionalitatea aplikatuko ditugu. Horrez gain, garrantzitsua da etengabeko prestakuntza eta autoebaluazio ohiturak sustatzea.

**Iraunkortasuna** da jorratu nahi dugun azken ikuspegia. Proiektu jasangarritzat hartzen dugu ezarritako helburuak pertsonen ongizateari edo ingurumenari kalterik egin gabe lortu nahi dituenak. Proiektu komunitario batek, behar espezifikoak erantzuteaz gain, guztion onura ere bilatzen badu, askoz ere babes instituzional handiagoa lortuko du, eta interes nahiz abegi handiagoa sortuko du herritarrengan.

Jarduerak bagoiak lirateke eta proiektua trena bere osotasunean. Bertara igoko dira hartzaileak, oraindik zehaztu gabe daudelarik barne-kudeaketako prozesuak; eta horiek izango dira aurrera egiten jarraitzea ahalbidetuko duten errailak. Orduan, dena prest egongo da bidaiariak trenera igo, eta nahi dugun geralekuraino iristeko!

[auzoekin.eus/eus03](https://auzoekin.eus/eus03)




# 04.

## HELBURU DIREN PERSONAK ETA INGURUMENA

1. Hartzaileekiko harremana
2. Faunarekiko eta ingurumenarekiko harremana





Barne-kudeaketa diseinatzerakoan, garrantzitsua da pentsatzea nolako izango den hartzaileekiko jarduna. Edo ingurumen-proiektuen kasuan, hobetu nahi den ingurunearekin, hemen dituzu ideia batzuk!

auzoekin.eus/  
eus04



## **Hartzaileekiko harremana.**

Pertsona batzuen erantzuna aurreikusi gabekoa izatera prestatu behar da, eta egoera horiei aurre egiteko gaitasuna izan behar da. Baliteke zenbait pertsonak jarrera positiborik ez izatea gizartean; nolana ere, horrek ez du esan nahi laguntza behar ez dutenik edo merezi ez dutenik.

Edonola ere, proiektu eta kasu zehatz batzuk alde batera utzita, jarduera gehienetan pertsonak oso eskertuta egoteaz gaindi, konplizitatean oinarritutako lotura eder-sendoak sortuko dira. Lotura horiek sortzean, baliteke gai pertsonalak ezagutaraztea, baina ez dira zabaldu behar, ezta proiektuko gainerako pertsonen artean ere. Laguntza eman ahal izateko informazio pertsonal jakin bat behar bada, beti eskatu beharko da zabalteko baimena. Aurrerago, 11. atalean, aurkituko duzu horri lotutako lege- eta konfidentzialtasun-alderdiei buruzko zenbait xehetasun.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da hasiera-hasieratik mugak eta arauak ezarri behar direla. Adibidez, elikagaiak entregatzeko proiektu bat egiten bada, laguntza jasotzen duten pertsonak jakin behar dute ezin diotela boluntarioari eskatu produktu bat erosteko edo markatutako ordutegitik kanpo harremanetan jartzeko. Halaber, garrantzitsua da boluntarioei arauak argi uztea, esperientzia faltagatik akatsak egin baititzakete. Arau posible ugari dago, onena da guztiak biltzea eta ideia-erauntsia egitea, jarraitu beharreko jarraibideak hauteman eta adosteko. Eta, jakina, antzeko proiektuetako txostenak eta gidak bilatzea beti ondo etorriko da.

## Faunarekiko eta ingurumenarekiko harremana.

Sentsibilizazio-ekintzez edo ekonomia zirkularra sustatzeko ekintzez gain, badira fauna edo ingurumena eraldatu nahi duten proiektu komunitarioak ere, harengan zuzenean jarduteko. Eta bizitzen ari garen klima-aldaketaren aurrean, gero eta beharrezkoagoak izango dira. Horren adibide izan daitezke ekogarbiketak: zaborra lakuetatik, mendietatik, hondartzetatik edo hiri-inguruneetatik kendu eta biltzea. Lehengoratzeko-erloto edo prebentzio-erloto proiektuak ere badaude. Hona hemen emaitza hobea lortzeko aholku batzuk:

1. Ingurunea ondo aztertu, nahigabeko edo ustekabeko kalterik ez eragiteko.
2. Prestakuntza-saioren bat eman jarduera bakoitzaren aurretik.
3. Datuak biltzeko moduari buruz adituei galdetu. Ikerketan laguntzeaz gain, herritarrak eta politikariak sentsibilizatzea ahalbidetuko dute.



# 05.

## **BOLUNTARIOAK ERAKARTZEA ETA KOORDINATZEA**

- 1. Profilak eta funtzioak definitzea**
- 2. Boluntarioak erakartzea**
- 3. Boluntarioei harrera egitea**
- 4. Boluntarioei laguntzea**
- 5. Erreleboa sustatzeko eta proiektua sendotzeko metodologiak**
- 6. Boluntarioen irteera**
- 7. Boluntarioen barne estatutua**

”

“Gizarte-mugimendu bat abian jartzen duten pertsonak aukera ematen dute inguruan hautematen dituzten gizarte-bidegabekeriako beharrei eta egoerei erantzuteko.”

**Gizalde**



## Profilak eta funtzioak definitzea.

Barne-kudeaketarako funtsezkoa da xehetasunez jakitea boluntario bakoitzak zer eginkizun izan behar duen. Horretarako, ariketa on bat boluntariotza ekintzako postuekin taula bat sortzea da, bakoitzean zenbat pertsona behar diren, izan behar dituzten gaitasunak eta funtzioak zehaztuta. Jarraian, horren adibide bat azalduko dugu. Profilak eta funtzioak oso modu orokorrean deskribatzen dira, baina komeni da zertxobait espezifikogoa izatea.

Boluntarioaren postua	Profila	Funtzioak
Zuzendaritza (postu 1)	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Kudeaketa- eta lidergo-trebetasunak.</li> <li>· Jendaurrian hitz egiteko gaitasuna.</li> <li>· Zereginak eskuordetzeko gaitasuna.</li> <li>· Proiektuak diseinatzeko gaitasun handia.</li> <li>· Gizarte-premiak ezagutzeko eta hautemateko gaitasun handia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Proiektuaren ordezkaria.</li> <li>· Kanpoko pertsonentzat kontaktua.</li> <li>· Erreferenteen koordinazioa.</li> <li>· Proiektuaren diseinua.</li> <li>· Boluntariotza-plana diseinatzea.</li> <li>· Proiektuaren hedapena.</li> <li>· Prestakuntza-arduraduna.</li> <li>· Kontabilitatea.</li> </ul>
Boluntarioen koordinatzailea (1 eta 3 postu artean)	<i>Aktibitateen eta helburu diren pertsonen koordinatzailearen antzekoa.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Boluntarioak erakartzea.</li> <li>· Boluntarioei harrera egitea.</li> <li>· Boluntarioei laguntzea.</li> <li>· Boluntarioen irteera.</li> </ul>

<p>Aktibitateen eta helburu diren pertsonen koordintzailea</p> <p>(1 eta (n + 1) postu artean)</p> <p><i>n = aktibitate moten kopurua</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Proiektuarekin konpromezu-maila handia duen pertsona.</li> <li>· Egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna.</li> <li>· Gizarte-, kudeaketa- eta lidergo-trebetasunak.</li> <li>· Prestakuntza-premiak hautemateko gaitasuna.</li> <li>· Gatazka konplexuak konpontzeko gaitasuna.</li> <li>· Autoikaskuntzarako gaitasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Hartzaileei harrera eta jarraipena egitea.</li> <li>· Proiektuaren jardueraren koordinazioa.</li> <li>· Jarduera-monitoreen koordinazioa.</li> <li>· Materialaren arduraduna.</li> </ul>
<p>Aktibitate-monitoreia</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Proiektuan jarduerak antolatzeko motibazioa.</li> <li>· Balio sozialak dituen pertsona arduratsua.</li> <li>· Bere burua ebaluatzeko eta etengabe prestatzeko interesa duen pertsona.</li> <li>· Talde-lanerako gaitasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Jarduera prestatzea.</li> <li>· Jardueren garapena.</li> </ul>

Litekeena da ekintza boluntarioko postu gehiago sortu eta erantsi behar izatea proiektuan; are, etorkizunean, elkarte bat sortuz gero, idazkaritzako, diruzaintzako eta egiturarekin lotutako postuak ere zehaztu beharko dira. Bestalde, oso ohikoa da norbaitek aldi berean ekintza boluntarioko postu bat baino gehiago hartu behar izatea horretarako ardura duen pertsonarik ez dagoelako; eta horrek higadura handia dakar, gehiegi hartzen duenak ezin diolako orori eutsi. Beraz, garrantzitsua da horrelako egoerek ez oso luze irautea.

Gerta daiteke, halaber, pertsona bakar batentzat pentsatutako postu bat bik betetzea, adibidez, koordinaziokoek. Lan egiteko modu horrek arrakasta izan dezan, funtsezkoa da postuaren funtzioak banatzea, lana ez bikoizteko, eta etengabeko komunikazioa izan behar dute, bai antolatzeko bai nola sentitzen diren partekatzeko.

## **Boluntarioak erakartzea.**

Normalean, elkar ezagutzen duten pertsonekin hasten da proiektua, baina uneren batean beharrezkoa izango da ordura arte ezezagunak ziren pertsonak sartzea. Boluntariotza denboran zehar etengabe erakartzea zeregin zailenetako bat da, ez konplexuena delako, baizik eta konstantzia handia behar delako eta motibazioa galtzea eragin dezakeelako.

Zergatik etengabeko bilketa? Akats handi bat zera izaten da: boluntario gehiago behar direnean soilik bilaketa-lanak abiatzea. Hori egitearen desabantaila handienetako bat da beharrak bultzaturik soilik sartuko direla boluntario berriak, eta pertsona horietako gehienek ez dute epe luzerako konpromisorik hartzen. Saiatu behar da sartzen denak hausnartuta egin dezan, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen.

Ahoz ahoko bidea da boluntariotzara erakartzeko hobekien funtzionatzen duena; aurrez aurreko jarduerak eta online ekintzak ere ondo datoz. Fisiko eta presentzialekin hasita, hainbat aukera daude, konplexutasun txikienetik handienara doazenak.

1. Leku estrategikoetan kartelak jartzea.
2. Kartelak banatzea eta azalpen txiki bat ematea.
3. Stand bat muntatzea gune interesgarriren batean, eta dinamikak egitea arreta erakartzeko eta proiektuaren helburuak edo metodologia transmititzeko.

Internet agertu zenetik, eta bereziki sare sozialak, oso erabilgarriak dira online bidezko deialdi eta kaptazioak. Funtsezkoa da ezer argitaratu aurretik ondo pentsatzea zer transmititu nahi den, xede-publikoarengana eta taldeari interesatzen zaion hartzailearengana iristeko eta, bereziki, ekintzari zenbat denbora eskaini ahal izango dioten etorkizunean.



Hain zuzen, ez da gauza bera Instagram edo Tik Tok bezalako sare sozial batean kontu bat irekitzea, non aldian-aldian edukia igo behar den; edo testu, irudi edo bideo baten laguntzarekin Whatsapp bidez boluntarioak erakartzeko kanpaina egin behar denean. Azken horrek eduki hori prestatzeko eta intereseko talde edo pertsoneri bidaltzeko denbora eta kalkulua beharko du.

Garrantzitsua da bilketak egitean proiektuko edo erakundeko boluntario guztiak kontuan hartzea; izan ere, zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu, orduan eta esponenzialagoa izango da irismena. Estrategia gehiago aurki ditzakezu proiektuaren hedapenari buruzko 7. atalean.

Boluntarioak erakartzeko, akatsekin praktikatu eta ikasi behar da. Batzuetan ondo ateratzen dira eta beste batzuetan ez dute aurreikusitako emaitza positiborik izaten. Funtsezkoa da konstantea izatea. Lehen esan bezala, prozesu horrek motibazioa gal dezake. Sartzen diren pertsonak ez daude soilik egiten diren bilketa-kopuruaren mende; aitzitik, baita gizarte-egoeraren, ager daitezkeen beste proiektu batzuen eta bestelako eragileren mende ere. Desilusioak saihesteko modu bat da proiektuaren jarduera hiruhileko bakoitzaren hasieran dagoen boluntarioria-kopuruan oinarritzea.

## **Boluntarioei harrera egitea.**

Norbaiti proiektua interesatzen zaionean, normalean interesduna posta elektronikoz edo telefonoz jarriko da harremanetan arduradunarekin. Lehen harremanaren ondoren, litekeena da banakako elkarrizketa bat egiteko unea izatea (edo taldekoa, eskaera gehiegi badaude).

Gomendagarria da elkarrizketetarako protokolo bat izatea eta beti pauso berberak jarraitzea. Elkarrizketa laburra (15 minutu) edo luzea (ordubete) izan daiteke, baina funtsezkoa da arduradunak elkarrizketa amaitzea, honako hau gogoan duelarik:

1. Zerk bultzatzen duen interesduna boluntariotza egitera.
2. Zer eskumen dituen borondatezko ekintza-posturako.
3. Zer prestasun izango duen epe laburrean.

Bestalde, interesdunari hau jakinarazi beharko litzaioke:

1. Proiektuaren antolamendua eta helburuak.
2. Egin beharreko funtzioak.
3. Jarraitu beharreko arau nagusiak.

Batzuetan, lehenengo elkarrizketa amaitzen denean, interesdunak onartzea erabakitzen da; horretarako, legezko dokumentu batzuk betetzea oso komenigarria da. 11. atalean, lege- eta konfidentziasun-alderdiei buruzkoan, prozesuaren xehetasunak aurkituko dituzu.

Hala ere, gure gomendioa da beti egun batzuk uztea interesdunak pentsa dezan eta balora dezan ea benetan prest dagoen eta konpromezurako gogoia duen. Esteka honetan boluntariotza erakartzeari eta koordinatzeari buruzko edukiak aurkituko dituzu.

[auzoekin.eus/  
eus05](https://auzoekin.eus/eus05)



## **Boluntarioei laguntzea.**

Pertsona bat izan behar da, gutxienez, proiektuarekin lotutako boluntarioei eta sartzen ari diren pertsona berriei laguntzeko arduraduna. Boluntarioak erakartzeko deialdia planifikatzeaz, elkarrizketak egiteaz, paperak egiteaz eta harremandutako zereginekin arduratzen den pertsona bera izan daiteke. Baina pertsona hori eguneroko jardueran ez badago, hobe da aldian-aldian eta gertuko tratua izango duen norbait izatea. Laguntza on bat honako pieza hauekin osaturik egon beharko litzateke: komunikazioa, jarraipena, prestakuntza, ebaluazioa, parte-hartzea eta aintzatespena.

Proiektu komunitarioko pertsona bakoitzak behar desberdinak izango ditu une berean, baina egokiena da guztiek pieza horiek osatutako laguntza jaso ahal izatea. Zoritxarrez, arduradunek eta, bereziki, zuzendariak ez dute zaintzen edo laguntzen duen inor izango, eta, horregatik, garrantzitsua da aldian-aldian biltzea sentitzen dutenaz hitz egiteko. Zerbait hartzera joatea ere aukera bat izan liteke!



## **Erreleboa sustatzeko eta proiektua sendotzeko metodologiak.**

Boluntariotzari laguntzen dion pertsona bat gutxienez edukitzeaz gain, hainbat ohitura ezartzeak proiektuaren etorkizunerako erronka garrantzitsuenetako bi lortzen lagun dezake: batetik, errelebo on bat lortzea eta, bestetik, elkarte bat osatzeko talde sendo bat izatea. Sarritan, proiektu baten zailtasuna ez da pertsona faltagatik izaten, baizik eta zuzendaritza-postuak hartzeko prest dauden pertsonen faltagatik.

Ona da erronka horri egunero aurre egitea, eta ez bakarrik ardura duten pertsonak beren burua proiektutik gertu ikusten dutenean. Horretarako, boluntarioek proiektuko jarduera guztietan parte hartzea sustatuko duten ohiturak sortu behar dira; hots, jardueraren eta gobernu-arloaren arteko aldea murriztu behar da. Eten hori murrizteko errezeta asko daude, baina guztietan funtsezkoena da horien alde egiten dutenak boluntarioekin batera dauden pertsonak ez ezik, erantzukizuneko postuak dituzten pertsona guztiak ere izatea.

Errezeta horietako batzuk izan daitezke: (1) gardentasun-ekintzak aplikatzea, adibidez, zuzendaritzaren bileren akta bidaltzea. (2) Bilera horiek irekitzea interesdun oro joan dadin, eta, noski, horietan parte hartzera animatzea (ez kezkatu, arraroa izango da pertsona gehiegi joatea). (3) Boluntarioei gai garrantzitsuei buruz modu pribatuan galdetzea. (4) Lantalde txikiak osatzea erronkaren bat lantzeko. (5) Aisialdiko jarduerak sustatzea boluntarioen artean, eta, horrela, lankidetzarako harremanak sortzea.

## **Boluntarioen irteera.**

Boluntarioen sarrera eta egonaldia zaintzea garrantzitsua den bezala, taldetik irteteko protokolo bat izatea beharrezkoa da, zauri irekiak geldi ez daitezen. Irteerak ez dira beti gustatuko litzazkigukeen bezalakoak; zenbaitetan, boluntario batzuk desagertu egiten dira ezer esan gabe, edo, zoritxarrez, zendu egiten dira. Gerta daiteke, halaber, zuzendaritzatik nahitaez aterarazi behar izatea, baina ohikoena izaten da boluntarioek irteeraren berri ematea da.

Azken kasuan, komeni da baloratzea ea pertsonak tarteren bat izan beharko lukeen lankideei eta lagundu dien pertsoneri agur esateko. Gainera, ona da zuzendariak bilera labur bat izatea joaten denarekin. Topaketa honetan, garrantzitsuena da egindako lana eskertzea eta bere esperientzia ebaluatzeko eta hobekuntzak proposatzeko tresnak ematea.

## **Boluntarioen Barne Estatutua.**

Euskadin, dokumentu hau erakundeentzat bakarrik da beharrezkoa. Baina auzolan proiektuetarako ere baliagarria izan daiteke, arestian aipatutako atal guztiak biltzen baititu, eta beste erakunde batzuen aurrean aurkezten eta herritarrei ezagutarazten lagunduko baitie. Jarraian, aurkibide posible bat aurkituko duzu.

1. Erakundearen edo proiektuaren aurkezpena.
2. Boluntariotzaren parte-hartzea inspiratzen duten printzipioak eta balioak.
3. Erakundeko boluntariotzaren definizioa.
4. Boluntarioei arreta emateko prozedurak.
5. Boluntarioaren eskubideak eta betebeharrak.
6. Boluntariotza onartzeko eta baztertzeko irizpideak.
7. Auzolan proiektuak hartzen dituen konpromisoak.
8. Legezko dokumentazioa.

# 06.

## **EBALUAZIOA ETA PRESTAKUNTZA IBILBIDEA**

- 1. Proiektuaren ebaluazioa**
- 2. Prestakuntza plana sortzea**
- 3. Prestatzaileak prestatzea**
- 4. Nola eman prestakuntza eraginkorra**

”

“Boluntarioen prestakuntza funtsezkoa da gizartean eragin handiagoa izateko: hobeak izateko jakitea.”

**Gurutze Gorria Gipuzkoa**



## **Proiektuaren ebaluazioa.**

Auzolan proiektu bakoitza desberdina da, bakarra egiten duten xehetasun askorekin, eta, beraz, ezin da adierazleen zerrenda orokor bat bilatu eta proiektua ebaluatzeko nahikoa izatea pentsatzea. Funtsezkoa da proiektua osatzen duten pertsonen ebaluazio-metodologia propioa planteatzea eta hartzaileen iritzia izatea. Gai konplexua da, baina hurrengo lerroetan argi pixka bat ematen saiatuko gara.

Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu ebaluazioa negatiboan eta positiboan zentratu behar dela, nahiz eta helburu nagusia proiektuan hobekuntza lortzea izan. Askotan, gehiegi azpimarratzen da gaizki egiten dena, eta ahaztu egiten da ondo egiten den guztia aipatzea, azkena, taldearen motibaziorako funtsezkoa izanik. Bestalde, hiru ebaluazio-mota bereiztea gomendatzen dugu. (1) Lehena, planteatutako helburuen lortzea ebaluatzeko. (2) Bigarrena, jarduerak eta barne-kudeaketak ebaluatzeko. (3) Hirugarrena, proiektuarekin lortzen ari diren emaitza orokorrak ebaluatzeko.

Ebaluazioa egiteko datu ugari beharko da, zalantzarik gabe. Horiek lortzeko, jardueraren arduradunek datuak bildu beharko dituzte. Proiektu batzuetan, boluntario bakoitzak egin dezake lan hori, eta, ondoren, arduradunari bidal diezaioke.

Nolanahi ere, oso garrantzitsua da kontuan hartzea inplikaturako pertsonen prestasuna, ebaluatzeko lanak ahalegin handiegirik ekar ez diezaien. Proiektu batean beti geratuko dira hainbat alor eta kontu jakiteke, baina baliabideak mugatuak direnean, gehiegi ebaluazioak helburuak lortzea zaildu dezake.

Datuak biltzerakoan, gogoratu behar da zer lortzen den jakin nahi dela, ez bakarrik zer egiten den. Hau da, proiektuan elikagaiak entregatzen badira, garrantzitsuena da jakitea, adibidez, zenbat pertsonari eman zaizkien eta haien beharrak bete ote diren. Zenbat elikagai eman diren soilik neurtuz gero, funtsezko informazioa faltako litzateke.



Nola definitu bildu nahi diren datuak? (1) Lehenik eta behin, hiru ebaluazioetako bakoitzean zer ezagutu nahi den pentsatu behar da. (2) Bigarrenik, hainbat adierazle kuantitatibo eta kualitatibo idazten dira. (3) Azkenik, bakoitzak zenbat pisu duen erabakitzen da. Prozesu hori guztia egiteko, baliagarria izan daiteke hainbat ebaluazio-teknika erabiltzea; webgunean gehiago sakondu ahal izango duzu.

auzoekin.eus/  
eus06



## **Prestakuntza-plana sortzea.**

Ebaluazioarekin batera, premia asko eta handiak antzemango dira, batzuk azkar erantzun ahal izango dira, aldaketa txikiek. Aldiz, zenbaitetan beharrezkoa izango da boluntario-talde osoaren prestakuntza.

Gizarte-proiektuetan lider izateko edo parte hartzeko beharrezkoak diren gaitasun gehienak ez dira gehiegi lantzen hezkuntza formalean edo arautuan (eskolan, lanbide-heziketan, besteak beste), eta horiek lortzeko modua hezkuntza ez-formalaren bidez egiten da.

Proiektua hobetzeko hezkuntza-edukien adibideak gida honetan bertan aurki daitezke (proiektuen diseinua, taldeen kudeaketa, sentsibilizazio-estrategiak, finantzaketa bilatzea, berdintasunean lan egitea, etab.). Baina egokiena da koordinatzaileek prestakuntza-plan propioa diseinatzea, honako hau jasotzeko:

1. **Helburu estrategikoak:** zer lortu nahi den.
2. **Printzipio metodologikoak:** nola egin eta ebaluatuko diren prestakuntzak edo tailerrak.
3. **Inplikaturako pertsonak:** irakasgaia nork eman eta jasoko duen.
4. **Prestakuntza-katalogoa:** barruko prestakuntza-ekintzak fitxen arabera bereizita jasoko dituen zerrenda, bai eta egon litezkeen kanpoko prestakuntzak ere.
5. **Prestakuntzarako aurrekontua.**

Baliteke prestakuntza batzuk proiektuko pertsonak eman ahal izatea, baina beste batzuk kanpoko prestatzaileen beharra izan dezakete, eta horretarako aukera asko daude!

Doakoen artean, ziur aski gizarte-etxeak, udalak, hainbat GKEk, Interneteko plataformek eta beste hainbatek eskainitakoak daude. Ordainpeko prestakuntzetarako, katalogoa askoz gehiago irekitzen da, prestakuntzan espezializatutako agentzietatik hasi eta hizlariak edo arloko profesionalak gonbidatzeraino.

## **Prestatzaileak prestatzea.**

Litekeena da proiektu komunitarioak oso aurrekontu txikia izatea, eta batez ere herritarrei laguntzeko erabili nahiko da; beraz, kanpoko prestatzaileak kontratatzea ez da aukera bat izango. Kasu horretan, egokiena da boluntariotzaren bitartez prestakuntza ematea, pertsonen aniztasun handiaren artean ere ezagutzen ere aniztasun handia baitago.

Erronka hori gauzatzeko, ezinbestekoa da norbaitek bere gain hartzea prestatzaileen taldea koordinatzeko ardura. Normalena da prestakuntza-planaren arduraduna ere izatea.

Hurrengo urratsa prestakuntza emango duten pertsonak prestatzea da; izan ere, nahiz eta gai jakin batzuetan aditu handiak izan, baliteke irakaskuntzan esperientziarik ez izatea. Horretarako, banakako bilerak edo taldeko tailerrak egin daitezke. Bilera horietan, pertsona bakoitzaren irakaskuntza-gaitasunak identifikatu behar dira, eta, beharrezkoa ikusten bada, hobetu.

## **Nola eman prestakuntza eraginkorra.**

Irakaskuntzan lan egin duten pertsonentzat ere, erronka handia izan daiteke prestakuntza proiektuaren testuinguruan egitea. Oso gai zehatza izango da, oso denbora laburrean transmititu beharreko gaia, eta boluntariora-taldeak askotariko profilak izango ditu.

Agian erronka handienetako bat prestakuntza hasi aurretik ere agertuko da, eta tamaina handiko talde bat biltzea da. Horretarako, funtsezkoa da boluntarioen taldekatzeak ondo egitea; hots, boluntarioek larunbat edo igande bat prestakuntzarako libre utziko dute bakarrik proiektuan sinesten badute.

Behin data, lekua eta taldea izatean (ez da gutxi!), prestakuntza antolatzen hasi behar da. Prestakuntza baten funtsezko piezak honako hauek dira:

1. Transmititu beharreko edukia.
2. Lortu nahi diren helburuak.
3. Erabiliko den metodologia.
4. Behar diren materialak eta jarduerak.
5. Ebaluazio-prozesua.

auzoekin.eus/  
eus06



# 07.

## **PROIEKTUAREN ZABALKUNDEA**

- 1. Materiala eta hedapen-bideak diseinatzea**
- 2. Aurrez aurreko ekintzak egitea**
- 3. Sare sozialetan zabaltzea**
- 4. Komunikabideetan agertzea**



”

“Planifikatu ondo zure estrategia, aukeratu kanal egokiak, izan konstantea, autentikoa eta sortu balio-educia. Bereizteko, gauzak modu bakarrean egin behar dira eta errealak izan.”

**CLI+ Comunicacion**

## **Materiala eta hedapen-bideak diseinatzea.**

Hedapen-materiala diseinatzeko, lehenik eta behin, zer transmititu nahi den, zein kanaletatik eta zein formaturekin pentsatu behar da. Mezuaren helburua (boluntariora edo finantzaketa) sentsibilizazioa izaten da. Hala ere, zabalkundea ere beharrezkoa izan daiteke hartzaileek proiektua existitzen dela jakin dezaten.

Gaur egun kanal asko daude erabilgarri eta proiektu bakoitza gusturago mugituko da batzuetan. Adibidez, sarean beren burua ezagutaraztea nahiago dutenak egongo dira, edo irratiz edo egunkariz egiten dutenak. Gauza bera gertatzen da formatuarekin: idatzia, irudia, audioa zein bideoa.

Aukera guztien artean erabakitzeko modu erraz bat da pentsatzea nor den xede-publikoa (adina, generoa, zaletasunak, herria, besteak beste.) eta nola iritsi bertara. Seguraski, pertsona askok parte har dezakete proiektuan, baina hobe da profil jakin batetik ekitea. Boluntarioak erakartzeko bada, talde-eragilea osatzen duten pertsonen ezaugarriak egokiak izango dira xede-publikoan.

Zabalkunde on bat ehun arrunt baino eraginkorragoa izan daiteke. Beraz, mimo prestatu behar dira. Jarraian, proiektua zabaltzen hasteko hiru bide nagusiak aipatuko ditugu.

## **Aurrez aurreko ekintzak egitea.**

Aurrez aurreko ekintzekin publiko mota guztietara irits daiteke, oso orokorretara, baina oso erabilgarriak dira pertsonekin konektatzeko. Hurbileko tratua denez, konexioa sendagoa izan ohi da.

Ekintza ohikoenak hitzaldiak, taldeen dinamikak edo sentsibilizazio-kanpainak dira. Halaber, ideia ona izan daiteke ekintza horietan argazkiak ateratzea, eta ondoren sare sozialen bidez zabaltzea edo komunikabideetara prentsa-ohar bat bidaltzea.

## **Sare sozialetan zabaltzea.**

Sare sozialak komunikatzeko tresna indartsuenetako bat dira, erabiltzaile asko mugitzen baitituzte. Horrek aukera ematen du proiektuaren komunitate bat sortzeko, urruti egonda ere harremanetan egongo diren pertsonekin. Beste erakunde batzuei ere ezagutarazteko aukera ematen du.

Hala ere, kontuan izan behar da sare sozial batek publikoarekin konexio bat sortzea eskatzen duela eta argitalpenak automatikoki egiten badira, pantailaren beste aldean emoziorik sortu gabe, inpaktu txikia izango dutela. Beraz, sormena asko landu behar da, eta ziurrenik boluntario batek zabalkundean bakarrik jardun beharko du.

## **Komunikabideetan agertzea.**

Komunikabideak ere aliatu handiak izan daitezke ezagutzera ematerako garaian. Tradizionalki, biztanleria orokorrak gaurkotasunari buruzko informazioa emateko erabiltzen duen modua da.

Ez da beti erraza proiektua komunikabideen espazioen barruan sartzea. Idatziko dutenekin egon daitezkeen harreman pertsonalen arabera ere bada. Edukiak gizartean izan dezakeen garrantzi-maila baloratu behar da, eta egunkariko, telebista-saioko eta abarretako pertsoneri helarazi.

Nola saldu jakiteko modu praktiko bat gaurkotasuna ematea da, gaurkotasuna proiektuarekin erlazioa badaiteke, oso litekeena da hari zabalkundea emateko interesa izatea.

Edukiak garrantzi handia badu, prentsaurreko bat eman daiteke, baina edukia jasotzen duen prentsa-ohar batekin, seguruenik nahikoa izango da. Gainera, informazioari kalitatezko argazkiak edo bideoak eranstean bazaizkio, asko eskertuko dute eta, ziurrenik, argitaratzeko aukera handiagoa egongo da.

Webgunean informazio gehiago aurkituko duzu hedapen-materiala prestatzeko moduari buruz, txantiloi batzuei buruz eta gizarte-proiektuetan jarraitzea komeni diren jokabide etikoei buruz.



[auzoekin.eus/  
eus07](https://auzoekin.eus/eus07)





# 08.

## PROIEKTUAREN AURREKONTUA

1. **Finantzaketa arazoa proiektu komunitario batean**
2. **Gastuen aurrekontua**
3. **Diru-sarreraren aurrekontua**

”

“Aurrekontua planifikatzeko orduan, hausnartu behar da nola helduko dion proiektuak herritarren premiari eta nola bilatuko duen finantzaketa bere ingurunean.”

**Saregintza Elkartea**

## **Finantzaketaren arazoa proiektu komunitario batean.**

Horrelako proiektuetan, elkarte edo GKE baten parte ez direnetan, zaila izango da finantzaketa lortzea. Baliteke herrian edo probintzian elkartekide ez diren pertsona-taldeentzako laguntzak egotea, baina ez da oso ohikoa; beraz, garrantzitsua da gastuak ondo planifikatzea proiektuarekin hasi aurretik.

Horretarako egokiena bi aurrekontu egitea da. Alde batetik, jarduerak eta barne-kudeaketak dakartzaten gastuak. Bestetik, lortzea espero diren diru-sarrerak. Balantze osoak zero izan beharko luke.

## **Gastuen aurrekontua.**

Agian hobe da aurrekontu labur batekin hastea, proiektuaren funtzionamendurako soilik funtsezkoak diren gastuekin. Normalean, aurrekontuak urteko plangintza izaten dute, baina proiektuaren lehen etapan hiru hilean behingo aurrekontuarekin has daiteke. Kontuan izan behar da aurrekontuan egindako edozein aldaketak jarduerak eta barne-kudeaketa doitzea ere badakarrela (eta alderantziz).

Funtsezko gastuak kontuan hartzeko, (1) jardueretarako behar diren eta beste erakundeek utzi ezin ditzaketen materialak hartu beharko lirateke kontuan. (2) Gerta daitezkeen argiaren, gasaren, kontu korrontearen mantentze-lanen eta bestelako gastuak. (3) Boluntariotzarekin lotutako gastuak (arropa, garraioa, aseguru) lehen hilabeteetarako.

Hilabetegutxira, aurrekontua eguneratu egin daiteke, gastu askoz ere zabalagoekin, esate baterako, material gehiago edo sare sozialetako publizitate-kanpainaren bat datozenak. Ordura arte, hasierako aurrekontu txikiarekin, diru-sarreraren mende egotea saihestuko da, eta arreta boluntario-talde on bat sortzera eta hartzaileekin harremanetan jartzera bideratu ahal izango da.

## Diru-sarreraren aurrekontua.

Diru-sarreraren aurrekontuan sartu beharreko kopuruak gastuetan dagoen kopuru bera izan beharko luke, baina ez dago argi diru-sarrera horiek nondik etorriko diren. Suposatuz proiektuak ez duela beste erakunde baten babespean lan egiten, eta, beraz, ezin duela fakturatu edo dirulaguntzarik eskatu, litekeena da diru-sarrerak biltze edo dohaintza pribatuetatik etortzea. Zenbat lor daitekeen aurreikusteko modurik onena aurretiko kasuak ezagutzea edo ingurunea aztertzea da.

Inguruan diru-bilketak egiteko hainbat modu daude, gaur egun crowdfundinga ere hauta daiteke Interneten. Baina kasu guztietan beharrezkoa da proiektua ondo zabaltzea eta ahalik eta gardentasun handiena izatea.

Diru-sarreraren aurrekontua egitean pentsatutako gastu-kopurua lortzea bideraezina dela ikusten bada, pentsatu beharko litzateke gasturen bat ekidin daitekeen, adibidez, materiala beste erakunde bati edo udalari eskatuta. Beti egongo da alternatibaren bat!




auzoekin.eus/  
eus08



# 09.

## ERALDAKETA DIGITALA





“Gure ustez, aro digitaleko eraldaketa aro digitalarekin bat datozen aldaketa kulturalen, printzipioen edo prozesuen multzoa da, eta horrek gailuak, prozesuak eta harremanak digitalizatzea ekar dezake edo ez.”

**APTES Elkarte**

## **Digitalizazioa vs Eraldaketa digitala.**

Baliteke atal hau jende askorentzat interesgarria ez izatea, nahiago baitute modu tradizionalagoan lan egin, baina uste dugu gai honi arreta eskaini behar zaiola. Teknologia gero eta ageriago dago gure bizitzetan, eta funtsezkoa da alderdi askotan. Adibidez, arrakala digital bat egon zen COVID-19aren pandemian, desberdintasun handia sortu zuena. Bertan, egoera ahulean zeuden haur eta gazteek ez zuten eskolak urrutitik jarraitzeko gailurik edo Internetik. Adinekoek ez zekiten mugikorrek nola erabili gertuko pertsonekin hitz egiteko edo laguntza eskatzeko. Biztanleria osoak errealitate berri bat aurkitu zuen, non gero eta gauza gehiago elektronikoki egiten diren.

Beraz, pertsona askorentzat erosoena ez izan arren, proiektu askok eraldaketa digitala egin behar dute. Kasu gehienetan gertatzen dena da, beharragatik, gizarte-proiektuak digitalizatu egiten direla, adibidez, aurrez aurre biltzea ezinezkoa denean, online eginez. Baina soluzio horiek aldi baterakoak dira, eta lehenago edo geroago beste batzuk beharko dira; horregatik, eraldaketa digitalaren kontzeptua landu nahi dugu.

Unean uneko konponbideak emateaz gain, eraldaketa digitalak honako hau ere esan nahi du: (1) proiektua diseinatzeko eta ebaluatzeneko orduan aukera teknologikoak kontuan hartzea. (2) Teknologiarekin zerikusia duten kultura- eta gizarte-aldaketetara egokitzea.

Gure ustez, gizarte-aldaketa lortzeko, gaur egun teknologiak kontuan hartu beharreko faktorea izan behar du. Bai proiektuaren zabalkunde ona lortzeko, bai herritarren beharrak aztertzeko eta emaitzak ebaluatzeko.

Hala ere, badakigu denbora gutxi egongo dela teknologiaren erabilera probatzeko eta hausnartzeko. Beraz, garrantzitsua da erronka hau pazientziaz eta jakin-minez hartzea.



Hasteko, baliagarria izan daiteke aplikazio horietako bakoitzean doako tresnak bilatzea. (1) Biltzeak. (2) Dokumentazioa. (3) Inprimakiak. (4) Komunikazio-bideak. (5) Sare sozialak. (6) Diseinu grafikoa. (7) Web-orria. Eta horiek proiektuari mesede nola egin diezaioketen pentsatzea:

Besteak beste, (1) proiektuaren artxiboekin partekatutako karpeta bat sortu. (2) Paperaren erabilera murriztu, dokumentu digitalak erabili. (3) Online inprimakiak erabili, ebaluazioak egiteko eta datuak erraz aztertu ahal izateko. (4) Testu edo bideo-deien bidez taldean hitz egiteko komunikazio-kanalak erabili. (5) Proiektua pertsona gehiagori zabaldu sare sozialen bidez. (6) Canva bezalako programak erabili, hedapen-materiala sortzeko. (7) Web-orri bat sortu, proiektuari dirua eman ahal izateko edo honen garapena aurkezteko.

Tresna digital berriekin lehen urratsak eman ondoren, proiektuak hainbat alderdi hobetuko ditu; adibidez, informazioaren kudeaketa hobetuko da, berrikuntzarako gaitasun handiagoa egongo da, krisi-uneei hobeto erantzun ahal izango zaie eta, ziurrenik, barne-kudeaketak askoz ere modu eraginkorragoan egingo dira. Eraldaketa digitalerantz urratsak ematen jarraitu behar da. Horretarako, honako galdera hauek planteatzea proposatzen dugu:

1. Zer ahalmen dute sartutako tresnek proiektuaren helburuei erantzuteko?
2. Teknologiarekin zerikusia duten helburuak sar daitezke?
3. Ba al dago arrakala digitalik boluntariorantz edo proiektuaren hartzailerekin?
4. Teknologiari buruzko zer prestakuntza behar dute parte-hartzaileek?
5. Inguruneko zein eragilek lagundu edo aholka dezakete eraldaketa digitala egiten?


Oraindik oso literatura gutxi dago horri buruz, baina bibliografiako 12. atalean bi gida oso interesgarri aurkituko dituzu. Bestalde, proiektuaren webgunean ideia eta tutorial gehiago ere eskuragarri dituzu.



# 10.

## GIZARTE-SARE BATEN PARTE IZATEA

1. Zergatik izan gizarte-sare baten parte
2. Modu erantzukidean lan egiteko estrategiak





“Garrantzitsua da helburu edo pertsona berdinekin lan egiten duten elkarteak ezagutzea, gizarteari erantzun egokiago bat eman ahal izateko.”

**Hazi eta Ikasi Elkartea**

## **Zergatik izan gizarte-sare baten parte.**

Gizarte-sareztat hartzen ditugu herritarrekin edo proiektuaren xede den ingurunearekin lan egiten duten pertsona guztiak. Familia, elkarteak edo gizarte-zerbitzuak. Kasu batzuetan, lankidetzaren modu naturalean aterako da, hala nola haur baten amarekin edo aitarekin harremanetan egotea. Baina beste batzuetan, harreman hori bilatu behar da, gizarte-hezitzaileekin edo ikastetxearekin esaterako; eta horrek lan handia eskatzen du.

Gure ustez, lau arrazoi nagusi daude beste eragile eta erakunde batzuekin lan egiteko. (1) Proiektuaren helburuak lortzeko, askotan laguntza edo ezagutza beharko da. (2) Agian beste proiektu bat edo antzeko helburuak dituzten beste pertsona batzuk ere laguntza hori ematen ari dira, eta bikoiztu beharrean, nola osatu bilatu beharko litzateke. (3) Hirugarren arrazoiak da proiektu komunitarioan ematen ari den laguntzaz gain, pertsonak edo inguruneak beste premia batzuk ere izango dituela, eta, horregatik, zer laguntza mota jasotzen ari den jakin behar da, eta gabeziaren bat ikusten bada, gizarte-zerbitzuei jakinarazi behar zaie. (4) Izaera juridikorik ez dutenez, auzolaneko proiektuek zailtasun handiak izan ditzakete legezko alderdi batzuekin edo finantzaketa lortzeko. Beste erakunde baten aterkiaren azpian lan eginez gero, konpon litezke.

Gizarte-sare bat sortzeko edo horren parte izateko arrazoi asko daude, baina muga handi bat dago; izan ere, horretarako, agente guztien denbora eta dedikazioa behar da: erantzunkidetasuna.

## **Modu erantzukidean lan egiteko estrategiak.**

Ezer baino lehen, azpimarratu nahi dugu auzolan proiektu baten arduradunek ez dutela GKEen edo erakundeen baliabiderik izaten. Azken horietan, saretze-lana beren lan-ordutegian egin dezakete askotan; eta are gehiago, sare horren parte izateagatik diru-laguntzak jaso ditzakete. Beraz, seguruenik ez da posible izango beste agenteek hartzen duten konpromezu berdina hartzea.

Sarea ehuntzeko konpromezua hartu badaiteke, jarraian gako batzuk utziko ditugu sare jasangarri eta eragingarria lortzeko. Webgunean arrakasta kasuak ezagutu eta gaian sakondu ahal izango duzu.

1. Eragile bakoitzak zer aldaketa lortu nahi duen ondo jakitea.
2. Zer jarduera eta metodologia erabiltzen dituzten ere ulertzea.
3. Denborak eta helburuak markatuko dituzten liderrak izendatzea.
4. Norberaren aurrerapena lortzeko ez lehiatzea; guztion ongizatea bilatzea.
5. Agenteen artean baterako jarduerak egitea.
6. Lortutakoa ebaluatzea eta hobekuntzak ezartzea.



auzoekin.eus/  
eus10

# 11.

## LEGE- ETA KONFIDALTASUN- ALDERDIAK

1. Oinarrizko lege- eta konfidaltasun-alderdia
2. Elkarre bat sortzeko bidean



## **Oinarrizko lege- eta konfidentzialtasun-alderdiak.**

Gure ustez, beti dator ondo beste elkarte baten, fundazio baten, ikastetxe baten, parrokia baten eta beste aterkiren baten babespean lan egitea, IFK funtsezko kudeaketa batzuk egiteko erabili ahal izateko (fakturak ordaintzeko, boluntarioen aseguru-poliza ordaintzeko, dohaintzak jasotzeko, besteak beste). Kudeaketa horiek egiterik ez badago, auzolan proiektuan zaindu beharreko lege-alderdi batzuk daude oraindik.

Horietako bat konfidentzialtasuna da, eta, horretarako, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) agintzen duena jarraitu behar da. Gomendagarria da araua zehatz-mehatz ezagutzea, baina, laburbilduz, oinarrizko bost jarraibide utziko dizkizugu jarraian.

1. Datu pertsonalak biltzeko erabili diren helbururako baino ezin dira ustiatu.
2. Helburua amaitzen denean, datuak ezabatu egin behar dira.
3. Datuak babestu behar dira; paperean badaude, giltzapean gorde behar dira; fitxategi digitala bada, pasahitzarekin babestu behar da.
4. Pertsonak bere datu pertsonalak lagatzeko baimena eman behar du (14 urtetik beherakoa bada, tutoreek baimendu behar dute).
5. Ez dira datu pertsonalak beste agente batzuekin partekatu behar pertsonaren berriazko baimenik gabe.

Kontuan hartu beharreko beste lege-alderdi bat borondatezko jarduerarekin lotutakoa da. Alde batetik, inork gutxi daki 12 urtetik aurrera boluntarioritza egin daitekeenik. Horretarako, adingabearen tutoreek jarduera egiteko baimena sina dezakete (beti ere adin nagusiko pertsona batekin egin beharko dute). Gure ustez, garrantzitsua da proiektuan parte hartzeko adina ahalik eta gehien zabaltzea, eta aurreiritzirik ez izatea, oso gaztea edo oso heldua izateagatik, pertsona orok baduelako gaitasun berezia eta ekarpena egiteko modua.



Beste kontu garrantzitsu bat da proiektuan adingabekoak badaude (boluntarioak edo hartzaileak), haiekin harremanetan egon ohi diren boluntario guztiek sexu-delituen ziurtagiri negatiboa aurkeztea. Ziurtagiri hori Internet bidez lortzen da NAN elektronikoa edo CL@VE izanez gero. Bestela, justizia-ministerioaren bulegoren batean eskatu behar da (normalean probintzia-hiriburuetan). Oso praktikoa da pertsona bati baimena ematea talde osoaren ziurtagiriak eskatzeko.

Bestalde, borondatezko jarduera oro hastean, eta ahal dela urtean behin, lanean hasteko akordio bat sinatu behar da, lanean hasten den pertsonaren eskubideak eta betebeharrak erakutsi eta adosteko. Era berean, gogoan izan behar da borondatezko jarduera doakoa dela eta ez duela kosturik ekarri behar jarduera egiten duenarentzat (lekualdaketa izan ezik, oso gutxitan ordaintzen baita, batez ere herri barruan bada).

Web-orrian formularioak eta informazio gehiago aurkituko duzu, legezko alderdiei, konfidentziasunari eta elkarteak sortzeari buruz. Azken alderdi horri buruz hitz egingo dugu hurrengo azpiatalean.

[auzoekin.eus/  
eus11](http://auzoekin.eus/eus11)



## **Elkarte bat sortzeko bidean.**

Elkarte bat sortzerakoan burokrazia handia dago, baina proiektuak nolabaiteko heldutasuna lortzen duenean, pausoa eman izanak merezi duela aise ohartuko gara:

Ezer baino lehen, estatutu batzuk idatzi behar dira. Horrek ez luke denbora gehiegi beharko gida honetako atal guztiak landu badira. Agian konplexua da erabili beharreko hizkuntza teknikoagatik, baina Interneten beste elkarte batzuen estatutuak adibide gisa erabil daitezke.

Estatutuak sortu ondoren, sortze-akta bat egin behar da, eta, bertan, elkarteko zuzendaritza-batzordeko kideek (gutxienez hiruk) idatziz utzi behar dituzte organigrama eta estatutuen onarpena.

Hirugarrenik, tasa bat ordaindu eta dagokion elkarteen erregistroan izena eman behar da, eta dena ondo badago, aste edo hilabete batzuk igaro ondoren baieztapena jasoko da!

Elkarte sortu ondoren, urtero bete behar diren erantzukizunak daude oraindik. Horien artean, urteko aurrekontua prestatu behar da, kontuen jarraipena egin, ohiko batzar orokorra deitu, akta-liburua eta bazkideen liburua eguneratu, zuzendaritza-batzordea berritu, esaterako. Lasai, iritsiko da garaia horretaz guztiaz arduratzeko!

Gida ixteko, hurrengo atalean erabilgarri izatea espero ditugun erakundeak eta bibliografia dituzu.



# 12.

## INTERESEKO BIBLIOGRAFIA ETA ERAGILEAK

### 1. Bibliografia interesgarria

- Auzolan ekintzekiko politika publikoa
- Proiektu komunitaria diseñatzea eta ebaluatzea
- Boluntarioen kudeaketa
- Beste gai interesgarri batzuk

### 2. Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko eragileak



## Bibliografía interesgarria.

Jarrian, oso testu interesgarriak aurkituko dituzu, gidan landutako hainbat gaitan sakontzeko. Doakoak dira eta titulua Googlen bakarrik idatzi beharko duzu. Bibliografía gure webgunean kontsultatzen baduzu, klik bakar batekin sartu ahal izango dituzu.

### Auzolan ekintzekiko politika publikoa:

- Acción comunitaria (2022). *Gipuzkoako Foru Aldundia*.
- Estrategia vasca del voluntariado (2021). *Boluntariotzaren Euskal Kontseilua*

### Proiektu komunitarioa diseinatzea eta ebaluatzea:

- Acción comunitaria para ganar salud (2021). *Escuela Andaluza de Salud Pública*
- Caja de herramientas comunitarias (WEB). *Community Tool Box*
- Como hacer proyectos sociales con impacto (2015). *Fundación Bertelsmann*
- Free Online Learning for Community Development (WEB). *Grasoots Hub*
- Guía de buenas prácticas para poner en marcha proyectos de voluntariado intergeneracional (2018). *CONFEMAC*
- Guía de diseño de proyectos sociales comunitarios bajo el enfoque del marco lógico (2015). *Marco A. Crespo*
- Guía para el seguimiento y evaluación de proyectos comunitarios (2009). *UNESCO*
- Guía para la gestión de proyectos sociales (2010). *Observatorio del Tercer Sector de Bizkaia*
- Guía para la promoción comunitaria con perspectiva de género (2005). *Instituto Nacional de las Mujeres México*
- Manual popular de diseño de proyectos comunitarios (2011). *Asociación de Mujeres de la Nacionalidad Kichwa*
- Marco legal de los proyectos comunitarios (WEB). *Monografías*
- REDefiniendo el trabajo comunitario (2010). *UPV/EHU*
- Volunteer Guides to Help Lead a Successful Project (WEB). *Create the Good*

### **Boluntarioen kudeaketa:**

- Claves para la gestión del voluntariado en las entidades no lucrativas (2009). *Fundación Luis Vives*
- Estrategia de participación institucional del voluntariado (WEB). *Espainiako Gurutze Gorria*.
- Gestión del voluntariado (WEB). *Gizalde*
- Gestión del voluntariado en ASPACE (2012). *ASPACE*
- Guía básica de gestión del voluntariado de COCEMFE (2019). *COCEMFE*
- Guía de Gestión del Voluntariado (2018). *RED ACOGE*
- Guía de seguimiento de la Gestión del Voluntariado en Proyectos (WEB). *Espainiako Gurutze Gorria*
- Retrato del voluntariado en España (2019). *Fundación Telefónica*
- Voluntariado en Euskadi - Situación General (WEB). *Eusko Jaurlaritzza*

### **Beste gai interesgarri batzuk:**

- Guía práctica para la comunicación de las ONGD (2019). *Coordinadora de ONGD España*
- Libro de buenas prácticas (2021). *EGK*
- Manual antirumores (2018). *Daniel de Torres*
- Manual de campañas para la transformación social (2018). *ONGAWA*
- Materiales de formación para entidades (WEB). *Donostiako Udala*
- Plan de formación (2006). *Espainiako Gurutze Gorria*
- Transformación digital de las ONG (2021). *Escuelita de ONG*
- Transformación en la era digital (2022). *APTES*



## Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko eragileak.

Gipuzkoan bizi zara?

[www.boluntariotza.eus](http://www.boluntariotza.eus) webgunean boluntariotza-proiektuak dituzten elkarteak eta GKEak aurkituko dituzu, eremuka banatuta. Horrela, ideiak hartu ahal izango dituzu, zalantzak kontsultatu, edo agian baten parte izatera animatuko zara.

Agian Gizalderekin harremanetan jartzea ondo etorriko zaizu, boluntariotzan hasten diren pertsoneri orientazioa ematen dien erakundeetako bat baita. Interesgarria izan daiteke Sareen Sarea, hirugarren sektore sozialeko gizarte-sareak biltzen dituen elkarte ere. Baina GKEk eta erakundeek osatutako sareak izan arren, agian formalegiak dira auzolan proiektu batentzat.

Auzolan proiektuei eta laguntza komunitarioko sareei buruzko informaziorik ez dagoenez eskura, [www.auzoekin.eus/mapa](http://www.auzoekin.eus/mapa) web orrian biltzen ari gara Gipuzkoan dauden ekimenak. Agertzen ez den bat ezagutzen baduzu, ez izan zalantzarik guri esateko: guk gehituko dugu!



Auzolaguntza proiektuak  
eta laguntza-sareak mapa  
batean

[auzoekin.eus/mapa](http://auzoekin.eus/mapa)









# AUZOEKIN

[www.auzoekin.eus](http://www.auzoekin.eus)



@auzoekin

